

TXORIERRI ESKUALDEKO KONTRATAZIOETARAKO LAGUNTZA PROGRAMA

ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO LAGUNTZEN DEIALDIA, LANBIDE-EEZko ZUZENDARI NAGUSIAREN 2016KO EKAINAREN 15EKO EBAZPENA (2016KO EKAINAREN 16KO EHAA) –KONTRATAZIOAK EGITEKO LAGUNTZAK- BEHARGINTZA TXORIERRI, SL.

Xedea	Ahal dela Txorierri eskualdean bizi diren langabeak eskualdeko enpresetan kontratatzen laguntzea.
Erakunde onuradunak	Egoitza fiskala, soziala edo lantokia Txorierriin duten enpresa, saltoki eta profesional guztiak, haien forma juridikoa zeinahi dela ldirin eta Txorierri eskualdea osatzen duten udalerrietako edozeinetako lantoki baterako kontratazio berria egin behar badute.
Kontratazioaren arriak	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kontratuak gutxienez hiru hil iraungo dute. Hala, edozein kontratu-motaren bidez formalizatu ahal izango dira, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuak salbu. ✓ Kontratuak lanaldi osoak izango dira. ✓ Kontratazioak enplegu garbia sortuko du kontrataturiko pertsona berria lanean hasi baino 3 hilabete lehenago zegoen plantillaren batez besteko osoaren gainean. ✓ Kontratazioaren soldata-kostuak (Gizarte Segurantzako gastuak barne) 4.000,00 eurokoak edo gehiagokoak izango dira. Hala, jaso beharreko laguntzak (3.000 euro) ez du gaudituko kontratazioaren soldata-kostuen % 75. ✓ Kontratuak <i>txorierri.eu</i> webgunean argitaratzen direnetik aurrera abiatu ahal izango dira, 2017ko otsailaren 1era arte. ✓ Emandako 10 diru-laguntzen bidez kontrataturiko pertsona guztien % 40, gutxienez, emakumeak izango dira eta eta diruz laguntzeko diren jarduketa guztietan kontratatu beharrekoen % 15, berriz, 55 urtetik gorako pertsonak. ✓ . Azkenean ehuneko hori lortzen ez bada, aldatu egingo da emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, diru-laguntza eman beharreko pertsona kontratatuen kopurua urritzeko eta, horrela, eskatutako ehuneko guztiak betetzeko.
Kontratu beharreko pertsonen betebeharrak	Langabeak izatea eta Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailer gisa izena emanda egotea. Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea; ahal dela, Txorierri eskualdea osatzen duten sei udalerrietakoren batean. Ez zaie diru-laguntzarik emango enpresariarekin edo sozietate-izaera juridikoa duten enpresetako kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-organotako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duten ezkontideen, oinordekoen eta gainerako senideen kontratazioei.
Laguntzen zenbatekoa	10 diru-laguntza emango zaizkie eskaerak eta ondorengo egiaztagiriak aurkezten dituzten erakundeei. Diru-laguntza bakoitza 3.000 eurokoa izango da kontrataturiko pertsona bakoitzeko. Erakunde esleipendunek oinarriak bete dituztela justifikatzen dutenean ordainduko da laguntzen zenbateko
Eredu ofizialak	Laguntza jasotzeko eskariak eredu ofizialaren bidez aurkeztu behar dira. Laguntzen atalean dago eskuragarri eredu hori, honetan: http://www.txorierri.eu .

TXORIERRI ESKUALDEKO KONTRATAZIOETARAKO LAGUNTZA PROGRAMA

<p>Eskaeren aurkezpena</p>	<p>Eskaerak Egaz Txorierriren bitartez aurkeztuko dira, kontratuaren oinarriak www.txorierri.eu webgunean argitaratzen direnetik 2017ko otsailaren 1era arte.</p> <p>Eskaera ez da behar bezala aurkeztutzat joko, egon daitezkeen hutsuneak zuzendu arte.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Epea: 2016ko abenduaren 1.arte ✓ Aurkeztu beharreko dokumentazioa: I. eranskina eta honako agiri hauek: ✓ Enpresaren IFKren kopia. ✓ Legezko ordezkariaren NANaren kopia eta, hala badagokio, ahalorde-eskritura. ✓ Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiria. ✓ Enplegu garbia sortzeko erantzukizun-adierazpenaren egiaztagiria (III. eranskina). ✓ Langleak Behargintza Txorierri, SL enplegu-agentziaren bidez (zenbakia: 1600000012) hartzeko erantzukizun-adierazpena eta indarreko araudia eta lan-arriskuen prebentzioari buruzkoa betetzen delako konpromisoa (IV. eranskina).
<p>Egiaztagirien aurkezpena</p>	<p>Egiaztagiriak eskuratzeko eskaera Egaz Txorierriren bitartez egingo da, kontratazioa hasi denetik 3 hilabeteko epean. Egiaztagiri guztiak 2017ko uztailaren 10a baino lehen aurkeztu beharko dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Epea: kontratazioa hasi eta hiru hilabete igarotzen direnetik aurrera. Egiaztagiriak aurkezteko azken eguna: 2017ko uztailaren 10a. ✓ Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Aldez aurretik laguntza-eskaria aurkeztu duten erakundeek egiaztatu egin behar dituzte egindako kontratazioak, VI. eranskineko ereduari jarraikiz, eta honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte: ✓ Kontraturiko pertsonaren NANaren kopia. ✓ Diru-laguntza jasoko duen kontratuaren kopia. ✓ Emandako laguntza justifikatzeko nominak eta RNT (Lehen TC1) eta RLT (lehen TC2) agiriak. ✓ Zinpeko deklarazioa, adierazten duena kontraturiko pertsona ez dela enpresariarekin edo sozietate-izaera juridikoa duten enpresetako kontrola dutenekin, zuzendaritza-kargua dutenekin edo administrazio-kontseiluetako kideekin odol- edo ezkontza-ahaidetasuna (bigarren mailara artekoa) duen ezkontidea edo ahaidea (II. eranskina). ✓ Diru-laguntza jasoko duen kontratazioak bestelako finantzaziorik ez duela egiaztatzen duen agiria (V. eranskina). ✓ Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen agiriak. ✓ Kontratazioaren aurreko 3 hilabeteetako batez besteko plantilla egiaztatzen duen agiria, GSDOk emandakoa. ✓ Kontratazioaren egunean bertako batez besteko plantilla egiaztatzen duen agiria, GSDOk emandakoa. ✓ Bankuko kontu-zenbakiaren titulartasuna justifikatzen duen hirugarrenen altaren fitxa (VII. eranskina). ✓ Eskatzen zaion beste edozein agiri.
<p>Esleipen-prozedura</p>	<p>Funtsen banaketaren bitartez egingo da esleipena, eskariak erregistratu ziren hurrenkerari jarraituz.</p>
<p>Gehienez esleien laguntza-kopurua</p>	<p>Gehienez ere 2 laguntza esleituko zaizkio eskaera egin duen erakunde bakoitzari.</p>
<p>Laguntza ordaintzea</p>	<p>Ordainketa bakarra egingo da (6.000 euro) eskaera bakoitzeko, honako baldintza hauek betetzen direnean</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Egiaztagiriak aurkeztea, egiaztagiri horiek oso-osorik eta behar bezala betetzea eta eskatu diren gainerako dokumentuak aurkeztea, oinarri hauetan adierazi diren betebeharrei eta baldintzei jarraituz. ✓ Eman diren laguntza guztien zenbaketa egitean, laguntza hori jaso dezaketen kontratazioen % 40 emakumezkoak direla egiaztatzea eta eta diruz laguntzeko diren jarduketak guztietan kontratatu beharrekoen % 15, berriz, 55 urtetik gorako pertsonak.